4.- Aprobación de presupuestos 2021, con un presupuesto de 518.500,00 euros.

5.- Aprobación cuotas a aportar por los Ayuntamientos, 14 €/habit. para la escuela infantil y 25,50 €/habit. para el Servicio Social de Base.

17.- RUEGOS Y PREGUNTAS

No se formulan.

Y no habiendo más asuntos que tratar, siendo las 21:00h. del mismo día, se levanta la sesión, de lo que doy fe.

Aurizko udaletxean, 2021eko ekainaren 17an, 19:00etan, Udala Bildu da bilkura arrunta egiteko. Bertaratu diren zinegotziak: Juan Miguel Juandeaburre Ainciburu, Miren Oyarbide Lapazaran eta Ana Azanza Burusco, bilkura buru alkatea, Jose Irigaray Gil, izan da eta idazkaria, udalbatzarena, Marisol Ezcurra Irure. Mikel Gaztelu Alonso zinegotziak etortzerik ez duela jakinarazi du.

1.- 2021eko MARTXOAREN 15eko ETA MAIATZAREN 3ko AKTAK ONARTZEA

Udalbatzak erabaki du aho batez martxoaren 15eko eta maiatzaren 3ko aktak onartzea.

2.- 2021eko MARTXOAREN 12tik EKAINAREN 15era ALKATEAK EMANDAKO EBАЗPENAK

Irigaray alkateak 2021eko martxoaren 12tik ekainaren 15era eman dituen ebazpenen inguruko informazioa eman du; ebazpen horiek bilkurako expedienteak daude eta udalkideak jakitun dira.

3.- 2020ko KONTUEN HASIERAKO ONESPENA

Udala Kontuen Batzorde Bereziaren lanak eginez ari da.

Alkateak, Irigaray jaunak, hitza hartu du eta 2020ko kontuen txostenaz honako informazioa eman du:

418.041,62 euroko aintzatetsitako obligazio garbiak, 418.450,31 euroko aintzatetsitako eskubide garbiak, 275.691,87 euroko gastu orokorretarako diruzaintzako gerakina eta - 896,97 euroko aurrekontu-emaitza daudela, egindako aldaketen eta doikuntzen ondoren. Era berean, 2020ko abenduaren 31n kutxan 172.731,05 €-ko izakinak (gehi 28.186,77+40.000,00 €) zituen arkeo-aktaren berri eman da, bai eta 2020ko abenduaren 31n 68.186,77 €-ko zor biziaren berri ere. Azkenik, adierazi du aurrekontuaren gauzatze-maila % 80,04koa izan dela, eta betebeharren % 97,29 ordaindu dela, finantza-iraunkortasunaren eta aurrekontu-egonkortasunaren printzipioak betez.

Horiek horrela, 2020ko Kontuen Txostena ikusita, Udalbatzak erabaki du aho batez:

- 1.- Kontuhartzailetzak egindako “Kontu Orokorra” onartzea
- 2.- “Kontuen Batzorde Bereziaren Txostena” onartzea eta hura onesten duen erabakia iragarki oholean paratzea 15 egun balioduneko epean, Nafarroako Toki Ogasunen Foru Legearen 242.3 artikuluaren arabera.

4.- 2021eko AURREKONTUEN HASIERAKO ONESPENA

Irigaray alkate jaunak 2021erako udal-aurrekontua aurkezu du (543.067 €). Gastuei dagokienez, azaldu du fotokopiagailu, eskaner eta inprimagailu bat erosi behar dela, administrazio elektronikoarekin aurrera jarraitzeko aurreikusitako eskakizunak eta arauak betetzeko, abeltzaintza-azpiegituren obrak eta baso-jarduerak, Ipetea zolatzea eta eraginkortasun energetikoa, argiteria publikoa berrituz. Jarduera guztiek, diru-laguntza jaso dute. Gaineratu du betetzen saiatuko dela baina pandemiak eta diru-laguntzek haren betetze mailan eragina izanen dutela.

Aurrekontuak eztabaidatuta, aho batez erabaki da 2021eko exekuzio oinarriak eta aurrekontuak hasiera batean onartzea, iragarki oholean jartzeara eta Nafarroako Aldizkari Ofizialean argitaratzea, Nafarroako Toki Ogasuneko Foru Legeak dioenarekin bat eginez.

5.- 2021eko PLANTILLA ORGANIKOA. HASIERAKO ONESPENA.

Alkateak, Irigaray jaunak, hartu du hitza eta esan du aurrekontuekin batera urteko plantilla organikoa onartu behar dela.

Udalbatzak erabaki du aho batez 2020ko plantilla organikoa honakoa izatea:

Funtzionarioak

Lanpostua: Zerbitzu Anitzetako Langilea. Plaza kopurua: 1. Sarbidea: Oposizio-Lehiaketa. Maila: Lan egoera: Jardunean. Mailako osagarria %15. Lanpostuko osagarria %15,77 Lanaldi osoa.

Funtzionarioen izen-zerrenda.

Z.A.L.: Jesús Román Pedroarena Etulain.

Langile finkoak.

Lanpostua: Administrari Laguntzailea. Plaza kopurua: 1. Sarbidea: Oposizio-Lehiaketa. Maila: D. Lan egoera: Jardunean. Mailako osagarria: %12, Lanpostuko osagarria: %28,35, Osagarri iragankorra: %7,91, Lanaldia: % 28,56. 28,56%.

Lanpostua: Administrari Laguntzailea. Plaza kopurua: 1. Sarbidea: Oposizio-Lehiaketa. Maila: D. Lan egoera: Jardunean. Mailako osagarria: %12, Lanpostuko osagarria: %28,35, Osagarri iragankorra: %7,91, Lanaldia: % 28,56. 28,56%.

Lanpostua: Zerbitzu Anitzetako Langilea. Plaza kopurua: 1. Sarbidea: Oposizio-Lehiaketa. Maila: E. Lan egoera: Jardunean. Mailako osagarria: 15%. Lanpostuko osagarria %8,77, Lanaldia: 35%.

Lan kontratudun finkoen izen-zerrenda.

Administrari laguntzailea Ana Isabel Erro.

Administrari laguntzailea María José Garralda Zubiri.

Zerbitzu Anitzetako Langilea: Cristina Carra Garcia.

Behin-behineko lan kontratudunak:

Lanpostua: Euskara teknika Plaza kopurua: 1. Sarbidea: Oposizio-Lehiaketa. Euskara. Maila: B. Lan egoera: Jardunean. Lanpostuko osagarria %6,73 Lanaldi osoa.

Behin-behineko langileen izen-zerrenda:

Euskara teknikaria Teresa Iribarren Larrea.

Orreaga eta Erroibarko Udalekin bateratutako zerbitzuak.

Kargua: Idazkaria. Plaza kopurua: 1. Sarbidea: Oposizio-Lehiaketa. A Maila. Lanpostuko osagariak: %40, Bateraezintasuna %35 Lanaldi osoa.

Administrazio lan araubidean kontratatutako langileen izen-zerrenda:

Ezcurra Irure, M^a Soledad. Bitarteko idazkaria. Egoera: Jardunean. Antzinatasuna 2012/06/11

6.- BATZARRE EGITEA (2020KO KONTUAK ETA 2021EKO AURREKONTUAK).

Irigaray alkate jaunak hartu du hitza, eta jakinarazi du, Batzarreko ordenantzaren 8. artikuluaren arabera, kontuak eta aurrekontuak onartzearon ondorioz, Udalak batzarre bat deitu beharko lukeela bi espedienteen berri emateko bizilagunei. Hortaz, proposatu du uztailaren 5ean 19:00etan egitea.

Aho batez erabaki da urteko kontuen eta aurrekontuen batzarrea uztailaren 5ean 19:00etan egitea Aurizko Kultur Etxean.

7.- ARETXEKOSARON, 5 POLIGONOKO 160 LURZATIAREN KATASTRO ALDAKETARI BURUZKO ERABAKIA

Irigaray alkate jaunak hartu du hitza. Azaroaren 2an hartutako erabakiaren ondoren (160. partzelaren katastro-aldeketa, 5. poligonoa), katastro-teknikak jakinarazi zion finkak ez zuela soilik 1990. urteko katastroaren ezarpen-akatsa Aetzubiko bidea dagoen bahitegiaren eremuan, baizik eta mendebaldera egungo aparkalekuaren eremuan ere (lehen hilerri zaharra zena); 5. poligonoan, 161. katastro-partzela. Udalaren lurzatiak jabetza pribatuarena inbaditzen du, eta ekialdeko eremuan gaizki zehaztuta dago egungo bidearekiko muga, lehen Larraldeko edo Bernatenako pentzea zena.

Puntu honetara iritsita, jabearekin batera, Herri Lurren Zerbitzuak egindako finka osoaren jasotze topografikoa egitea erabaki zen, jabetzaren ordezkari baten eta alkatearen beraren aurrean, zeinak jakinarazten baitu jasotze topografiko erraza dela, erreferentziak oso argiak direlako. Alde batetik, hilerri zaharreko pareta, bestetik, Aetzubi bideko lizarrak, jabetzakoak direnak, eta, azkenik, kontuan izan behar da bertako burdin-hesiak berritu gabe daudela eta oso zaharrak direla. Egindako neurketaren arabera bi lurzati daude: batak 917 m² ditu eta Udalaren herri-lurra da, eta

besteak 5.343 m² ditu eta Nieves Urdiroz Villanuevarena da. Orain arte egindakoa jabearen oniritziarekin egin da, eta azkeneko neurketarekin ados dagoela esan du. Emakumea berriki hil da eta katastroko teknikariak egindako egokitzapena Yoller Urdiroz jaunari jakinaraziko zaio, berak oinordekoei esan diezaien.

Aho batez erabaki da Herri Lurretako Zerbitzuak idatzitako txosten berria onartzea eta haren kopia eta Udalaren erabakia oinordekoei bidaltzea Iñaki Yoller Urdirozen bidez, jakin dezaten eta dagozkion ondorioetarako.

8.- AGOAZILAREN LANAK BESTE BATZUEK EGITEA

Irigaray alkate jaunak hartu du hitza, eta jakinarazi du alguazil jauna bajan dagoela denboraldi luze batez eta uda denez lanik handiena dagoen garaia, egin beharreko lanen zati bat kanpora ateratzea proposatu du, hala nola itxiturak egitea, belarrak moztea, urak mantentzea eta abar.

Denak ados egonik, aho batez erabaki da behar diren lanak kanpora ateratzea eta alkateari ahalmena ematea, udalbatzari aldez aurretik jakitera eman ondoren, behar diren kontratuak egin ditzan.

9.- SAN JUAN HERRIKO FESTEI BURUZKO ERABAKIA

Irigaray alkate jaunak jakinarazi du bilera bat egin duela gazteekin, ekitaldiren bat antolatzeko asmoa zutelako eta jaiak direla-eta antolatzeko aukera aztertzeko. Asmoa ez zela beti bezala ospatzea, baina bai jardueraren bat egitea. Kontuan hartuta bai Nafarroako Udal eta Kontzejuen Federazioak bai Osasunbideak gomendatzen dutela jaiak ez egitea, Kultur Etxean kontzerturen bat antolatzea proposatu zitzaien, baina hasieran horretarako interesa zuten gazteek uko egin diote beren asmoari. Beste aukera bat da iaz bezala ekitaldiak egitea, publikorik gabeko Dianak, patroiaren meza eta adinekoei omenaldia egitea; izan ere, Gaztelu zinegotzi jaunak proposatutakoa betez, eta iaz onartu zenez omenaldia egiteko adina 80 urtetik gorakoa izatea, aurten 1936 eta 1939 artean jaiotako adinekoak omendu behar dira. Ekitaldi horiei gazta banatzeko aukera erantsiko zaie, eta hori aztertuko da.

Zuhurrak izan behar gara, oraindik ere zer egoeratan gauden ikusita, eta aho batez erabaki da honako ekitaldi hauek bakarrik egitea: zaindariaren meza eta 1936tik 1939ra bitartean jaiotako adinekoei omenaldia.

10.- RED EXPLORA ELKARTEARI ATXEKITZEA

Irigaray alkate jaunak hartu du hitza, eta Red Explora Elkarteari buruz esan du espacio edo ibilbide natural berezien elkartea bat dela, eta Proiektu Estrategikoen Sailaren eta Lursarearen (Nasuvinsa) mende dagoela. Ingurugiroarekiko errespetuan oinarrituta balioan jartzeko kokaguneak bilatzen dira. Gune bereziak ikusi zituen haikekin, eta Arrobiko borden eremua proposatu zen, baso "zaharra" delako, biodibertsitate handikoa eta, gainera, kontakizun historikoa duena. Azaldu zitzaison Udalak laguntza jakin batzuk jaso ditzakeela, baldin eta elkarteko kide bagara. Horregatik, elkardea ezagututa eta haren estatutuetan deskribatutako helburu sozialarekin ados egonik, eta udalerrarentzat interesgarria dela ulertuta, elkarteari atxikitzea proposatzen du.

Irigaray alkateak egindako proposamenarekin guztiak ados egonik, aho batez erabaki da:

1º.- Red Explora Elkarteari atxikitzea

2.- Red Explora elkarteko Zuzendaritza Batzordeari eskatzea onar dezala eskaera hori eta erabaki dezala erakunde kideen erregistroan alta ematea, bazkide gisa. Estatutuek elkartekideei ematen dizkienetan eskubideak eta betebeharra ezagutu eta errespetatzeko konpromisoa hartzen du.

11.- AEZKOAKO BATZARRE NAGUSIAK ETA ORBAIZETAKO UDALAK, MIKEL ZABALZAREN KASUA IKERTZEKO SUSTATU DUTEN MOZIOA ONESTEA

Irigaray alkate jaunak Orbaizetako Udalak eta Aezkoako Batzarre Nagusiak aurkeztutako mozioaren berri eman du. Mozioa Mikel Zabalza kasuaren ikerketari buruzkoa da. Hori ikusita, aho batez erabaki da jarraian transkribatuko den mozioa onartzea eta harekin bat egitea, eta hartutako erabakia bi erakundeei helaraztea:

Mikel Zabalza gazte nafarraren heriotza ikertzeko eta argitzeko eskatzen duen adierazpena

Mikel Zabalza (1952-1985) beste pertsona batzuekin batera atxilotu zuten duela 35 urte ETAko kide gisa, eta Donostiako Intxaurrendoko Guardia Zibilaren kuartelera eraman zuten. Mikel Zabalza bizirik sartu zen kuartelera eta, 20 egun geroago, hilda agertu zen Bidasoa ibaien.

Baina zer gertatu zitzaison Mikel Zabalzari? Gaur egun indarrean dagoen bertsio ofizialaren arabera, inguru horretan ETAREN zulo bat egiaztatzen ari zirela, Zabalzak guardia zibilengandik ihes egin zuen, ibaira erori zen eta itota hil zen. Atxilotuek torturak salatu zitzuten, eta gizartearen zati handi batek ez zuen inoiz sinetsi Guardia Zibilaren bertsioa.

Pùblico hedabideak 2021eko otsailaren 22an argitaratu zituen grabazio batzuek agerian uzten dute Mikel Zabalzaren heriotza Guardia Zibilaren Intxaurrendoko kuarterean jasandako torturengatik izan zela. Grabaketa Luis Alberto Perote Mikel Zabalza atxilotu zuten garaian CESIDeko (Defentsaren Informaziorako Goi Zentroko) koronelaren eta Galindoren aginduetara zegoen Pedro Gomez Nieto Guardia Zibileko kapitainaren arteko elkarritzeta da. Grabazio horretan esaten denez, Intxaurrendon jasandako torturen ondorioz hil zen Zabalza; zehazki, buruan poltsa aplikatzeagatik. Grabazio berean Gomez Nieto entzun daiteke "eskuetatik joan zaie, galdeketan geratu zaie" esanez.

Nahiz eta zantzu guztiengarrena Zabalza Intxaurrendoko kuarterean jasandako torturen ondorioz hil zen, 35 urte geroago, familiak oraindik ez du errekonozimendu ofizialik eta ez dute inor zigortu. Zabalza familiak ez du egiarik, ez eta, beraz, justiziariak eta erreparaziorik ere. Auzitegiak behin baino gehiagotan erabaki dute auzia artxibatzea, frogatzen faltagatik, gertatutako aritu gabe eta erantzukizunik zehaztu gabe. Heriotza horren zigorgabetasunak ezin du aurrera jarraitu.

Gure ustez, grabazio horiek funtsezkoak izan daitezke kasuan, eta kontuan hartu beharrekoak dira.

Horregatik, honako hau erabaki da:

- 1.- *Tortura legez kontrako indarkeria eta giza eskubideen urraketa gisa errefusatza..*
- 2.- *Espaniako Gobernuari espediente honekin zerikusia duen guztia desklasifikatzeko eskatzea.*
- 3.- *Guardia Zibileko kapitain Gómez Nietok eta garai harten CESIDeko Juan Alberto Peroteren koronel buruak parte hartzen zuten audioak agertu ondoren, audioen edukia sakon ikertzeko eskatzea, Mikel Zabalza gazte nafarraren heriotzaren inguruko egia jakiteko.*

12.- UDAL IKASTETXEA ARANZADI ZIENTZIA ELKARTEARI UDAN ERABILTZEKO BAIMENA

Irigaray alkate jaunak hartu du hitza eta jakinarazi du, aurreko urteetan bezala, Aranzadi Zientzia Elkarteak Zalduako aztarnategiko indusketekin jarraituko duela, eta, beraz, berriz ere baimena eskatu dutela Aurizko eskola publikoa erabiltzeko.

Aho batez erabaki da Aranzadi Zientzia elkarteari baimena ematea eskola publikoa erabiltzeko ikasleen oporraldia bitartean.

13.- UDAL INDUSTRIALDEENTZAKO DIRU-LAGUNTZA ESKAERA: IPETEAKO SARBIDEAREN URBANIZAZIOA ETA ADJUDIKAZIO-PROZEDURAREN ONESPENA.

Irigaray alkate jaunak hartu du hitza. Enpresa Politika, Nazioarteko Proiekzio eta Laneko zuzendari nagusiaren apirilaren 20ko 157/2021 EBAZPENAREN berri eman du. Ebazpen horren bidez, jarduera ekonomikoak garatzeko udal-poligonoak eta -lokalak sustatzeko diru-laguntzen 2021eko deialdia onartu da, eta Ipeta industrialderako sarbidea zolatzeko laguntza eskatzea proposatu du.

Egindako proposamenarekin ados egonik eta Eunate Ingeniaritzak idatzitako proiektua ikusita, honako hau erabaki da aho batez:

- 1.- Onartzea AURIZKO IPETEA INDUSTRIALDERA SARTZEKO BIDEA ZOLATZEKO PROIEKTUA, Eunate Ingenierosek idatzitakoa. Aurrekontua: 40.571,76 €, BEZA barne.
 - 2.- 2021ean jarduera ekonomikoak garatzeko udal poligonoak eta lokalak sustatzeko diru-laguntzen deialdirako laguntzen eskaera onartzea.
 - 3.- 40.000 eurotik beherako kostua duenez, onartu egin da araubide bereziko prozedura erabiltzea zenbateko txikiagoko kontratuetarako, Nafarroako Kontratu Publikoei buruzko 2/2018 Foru Legearen 81. artikuluan jasotakoaren arabera.
- Aurreikusten da kontratua abuztuaren 1ean formalizatuko dela, alkatetzaren ebazpen bidez, eta obrak egiteko epea astebetekoa izango da. Lanak abuztuaren bigarren

hamabostaldian egingo dira, abuztuaren 18an hasi eta 2021eko abuztuaren 27an amaituz.

4.- Hurrengo finantza-plana onartzea:

“LANAK”: AURIZKO IPETEA INDUSTRIALDEKO SARBIDEA ZOLATZEA

INBERTSIOA

Obraren zenbatekoa (BEZ barne) eta, hala badagokio, eraginak

40.571,76 €

Ordainsariak BEZ barne

3.245,74 €.

Inbertsioaren zenbateko osoa BEZ barne

43.817,50 €

FINANTZA-BIDEA

Pirinioko Planaren ekarpenea

7.644,36 €

Industria Departamentuko diru-laguntza

21.908,75€

Diruzaintzaren soberakina

14.264,39€

Finantzamendua, guztira:

43.817,50 €

Industria Departamenduko diru-laguntzan ezarritako kopurua dezakeen zenbatekoa toki-erakundeak aurreikusitako zenbatekoa baino txikiagoa balitz, eta, beraz, toki-erakundeak finantzatu beharreko zenbatekoa handiagoa bada, gehikuntza hori diruzaintzako gerakinak lortuko da, eta obra horri dagokion zenbatekoari eragingo dio.

14.- ESPAINIAKO EKONOMIA ETA GIZARTE BERRESKURAPENEAN TOKI ENTITATEEK DUTEN PARTAIDETZARI BURUZ EUPF-ak EGINDAKO ERAKUNDE ADIERAZPENARI ATXEKITZEA

Espaniako Udalerrien eta Probintzien Federazioak, Nafarroako Udalerrien eta Kontzejuen Federazioaren bidez, EUPFaren adierazpen instituzional bat aurkeztu du, toki-erakundeek Espaniako berreraikuntza ekonomiko eta sozialean duten parte-hartzeari buruzkoa, toki-erakundeek harekin bat egin dezaten.

Hura irakurri ondoren, aho batez “Adierazpen Instituzional” hau ONARTU DA eta erabakia NUKFari igorriko zaio jakinaren gainean egon dadin eta dagozkion ondorioak izan ditzan:

1. *Toki-erakundeek Autonomia Erkidegoek Europatik – REACT-EU funtsak eta Espaniako Gobernuk ETEentzako eta autonomoentzako zuzeneko laguntzetan – jasoko dituzten funtsen ehuneko 15 jaso beharko dute, 15.000 milioi euro, osasun-gastuak deskontatu ondoren.*

2. *Funts horiek biztanleen arabera banatuko zaizkie udalei, eta ad hoc formula erabiliko dute diputazioek, kabildoek eta uharteetako kontseiluek.*

3. *Udalerrien, probintzien eta uharteen lurralte-federazioen parte-hartzea eskatzea, kasuan kasuko autonomia-erkidegoetara jo dezaten eskakizun hori betetzeko.*
4. *Toki Entitate guztiei, Erkidego Autonomoei eta Espainiako Gobernuari erabaki honen berri ematea.*

15.- NAFARROAKO POLIGONO EOLIKOEN ETA EGUZKI POLIGONOEN ATZERAPEN-ESKAERARI ATXIKITZEA

Plataformen Koordinakundeak Nafarroako poligono eolikoen eta eguzki poligonoen luzapenera atxikitzeko eskaera egin du, eta arazo horrek Spainia osoari eragiten diola ikusita, korporazioak, manifestuaren edukiarekin ados egonik, aho batez erabaki du ondoren transkribatzen den manifestuari atxikitzea, eta erabakia Luzapen-Plataformaen Koordinakundeari helaraztea.

POLIGONO EOLIKOEN ETA EGUZKI-POLIGONOEN AURKAKO MANIFESTUA NAFARROAN MORATORIA BEHAR DUGU!!

Klima-aldaketaren ondorioak hemen daude. Gaur egungo hazkunde mugagabearen eta garapenaren ereduarekin zerikusia duten berotegi-efektuko gasen isurketek gradu bat inguru igo dute lurreko tenperatura globala industriaurreko mailekin alderatuta, komunitate zientifikoaren arabera. Kontua da noraino iritsiko den eta zer inpaktu onartzeko prest gauden.

Litekeena da berotzeak 2030 eta 2035 artean 1,5 gradu zentigradu gehitzea munduak berotegi- efektuko gasen emisioen egungo erritmoa jarraitzen badu. Horrek esan nahi du , hamarkada baten bueltan, Parisko Akordioaren helburua (hau da, 2100. urtean 1,5aren azpitik geratzea) ezerezean gera daitekeela

Hori saihesteko, aurrekaririk gabeko trantsizioa behar da energia-sisteman, garraioan, industrian, nekazaritzan, gure eguneroko bizitzan 1,5eko helburua bete nahi bada. 2030ean karbono dioxidoaren (CO2) emisioak – berotegi - efektuko gas nagusia – % 55 murriztu behar lirateke, 1990eko mailarekin alderatuta. 2050ean, isurketa horiek – erregai fosiletatik datozen gehienak – desagertuta egon beharko dute, baita lehenago ere, 2040rako.

Egungo hazkunde-ereduarekin, baliabideen harrapari eta emisio eta ingurumen-inpaktu global oso larriak sortzen dituenarekin, klima-aldaketari aurre egiteko itzulerarik gabeko puntu batera hurbiltzen ari gara. Egoera oso larria da: ekosistemei kalte kritikoa egiteaz gain, gizartean egungo egitura bera ere kaltetuta geratuko litzateke.

Azken aldian, eta klima-krisiaren aurrean, energia berriztagarrien hedapen zabalean oinarritutako trantsizio ekologiko eta energetikoaren beharraz hitz egiten ari gara. Horrela, Estatu espainiarrean instalazio berriztagarrien proiektuen garapen masiboa eta eskala handikoa gertatzen ari da, eta Nafarroa ez da salbuespina.

Gaur egun, berriztagarrien bidez energia elektrikoa sortzeko proiektu berri eta ugari tramatzen ari dira gure erkidegoan: Erriberako, Lesakako, Lizarrako (Urbasa-Andia), Lizoain-Arriasgoitiko, Esteribarko, Olaibarreko, Ezkabarteko, Eguesko Haraneko, Anotzbarko, Erdialdeko Eremuko (Valdorba, Ujue, Murillo el Fruto, Tafalla, Artajonako) parke eolikoak eta eguzki-poligonoak Erreniaga, Erriberrin,... Ahaztu gabe Erribera osoan han-hemenka egin nahi dutenak.

Proiektu horiek egiteak ekosistemetan eragin larriak izango ditu. Eta, hala ere, nekez geldiaraziko dituzte adierazitako arazo klimatikoak. Hori horrela da energia berriztagarrien mugak direla medio:

- *Aldizkakoak dira eta ez daude kontzentratuta; beraz, azpiegitura askoz gehiago instalatu behar dira behar den energia-ekoizpena lortzeko.*
- *Oro har elektrizitatea ekoizten dute, baina gaur egun Nafarroan kontsumitutako energiaren % 20 baino ez da kontsumo elektrikoa. Horrek esan nahi du ekonomia goitik-behera berregituratu behar dela, eta hori ez dira planifikatzen ari.*
- *Eta, gainera, berriztagarriek lehengaiaik erauztearen mendekoak izaten jarraitzen dute; horietako asko urriak dira, eta energia asko eta ingurumen-inpaktu handia behar dute horiek lortzeko.*
- *Horregatik uste dugu trantsizio teknologiko soila ez dela gai berez berotegi-efektuko gasen isuriak murrizteko. Berriztagarriak ez dira nahikoak gaur egun kontsumitzen dugun energia kantitateaz hornitzeko. Beharrezkoa da kontsumorako xahutze horri modu planifikatu eta demokratikoan aurre egitea, edo bestela errealtitate gordina inposatu egingo da eta kontsumoa murriztu egingo da, indarrez eta plangintzarik gabe.*
- *Eta CO₂ igorle garbiak dira bizitzako lehen urteetan (2,5 urte parke eolikoen kasuan, eta 5 urte fotovoltaikoen kasuan). Urte horiek dira, hain zuzen ere, urte kritikoak inflexio-puntu jakin batzuk gaindi ez daitezten.*

Baina, gainera, berriztagarrien hedapena behar bezala planifikatzen ez bada, gure beharrei eusteko gai izango ez den lurralde bat aurkituko dugu. Esan dugun bezala, teknologia berriztagarriek muga materialak eta espazialak dituzte Nafarroan eta Nafarroatik kanpo. Eta horiek garatzeak presio berria dakar lurraldean, lur-eremu handiak behar baitira, inpaktu larriak eraginez nekazaritzan, paisaian, biodibertsitatean, ekosistemetan eta beste alderdi askotan.

Horregatik guztiagatik, behean sinatzen dugun erakundeok argi eta garbi esan nahi dugu trantsizio ekologikoa ezin dela soilik egin teknologia fosilen ordez teknologia berriztagarriak erabiliz. Gure apustua produkzio desentralizatuan eta instalazio berriztagarri txikietan oinarritzen da, lurralde- antolamenduarekiko bateragarritasun handiagoa ahalbidetzen baitute, kontsumo-zentroetatik hurbil daudelako, bai eta

energia-eraginkortasuna hobetzea eta energia-kontsumoa murriztea ere, egungo xahutzearekin jarraitza eragin gabe.

Berriztagarrien abantaila handienetako bat modulartasuna da, eskala txikiko instalazioak efizientzia-maila onarekin garatzea ahalbidetzen baitu. Horregatik, eredu erraldoi eta zentralizatuaren aurrean, bestelako eredu proposatzen dugu, sortze-puntuak kontsumora hurbilduko dituena eta garraio-galerak nabarmen murriztuko dituena, tokiko baliabideak aprobetxatzuz.

Une erabakigarri baten aurrean gaude, datozen hilabeteetan Nafarroan eskala handiko berriztagarrien proiektu ugari baitatoz. Testuinguru horretan, gure ustez, beharrezko da eztabaidea sozial zabala abiaraztea implikatutako estamentu guztiak eta herritarren artean; eta erabakitzea ea gizarte gisa jabetzen garen larrialdi klimatikoaz; ea prest gauden eta prest gauden ingurumen- eta gizarte-balioak interes ekonomikoak gainetik jartzeko; ea ahalegina egingo dugun gure gizartearen behar energetikoak eta materialak murrizteko; ea prest gauden gure kontsumo- eta bizimodu-ohituran aldatzeko; ea Nafarroa, hausnarketatik, lasaitasunetik eta plangintza demokratikotik abiatuta, trantsizio energetikoaren eredu bat izan daitekeen, edo estatistiketan energia berriztagariaren ekoizle soil gisa baino ez den agertuko; ea jabetzen garen berriztagarriek ere mugak dituztela, edo teknologia hutsa arazo guztiak konponbidea dela pentsatzen jarraitzen dugun; ea herritar gisa gure energia sortzeko prozesuan parte hartu nahi dugun, udal eta herri mailako boterea indartuz, kontsumitzaleak babestuz.

Klima Aldaketari eta Trantsizio Energetikoari buruzko Foru Legearen aurreproiektuak klima- aldaketaren aurka borrokatzeko oinarri sendoak ezartzen lagun zezakeen; egungo energia-eredua aldatzeko aukera paregabea. Baino ez da horrela izan. Eta gainerako ingurumen-legedia ez da nahikoa, energia berriztagarrien makroproyektuen kopuruari aurre egiteko.

Berotegi efektuko isuriak murrizteko helburuak garaiz betetzeko beharrak, energia-enpresen gose ekonomiko neurrigabeak eta energia berriztagarrien azpiegituren hedapen itzela gauzatzeko plangintzarik ezak arazoa areagotzen lagun dezakete, arazoa arindu beharrean. Eta gero berandu izango da.

Egoera larri horren aurrean, ondoko bi eskaera egiten ditugu:

1/ Nafarroako Gobernuari eta Parlamentuari eskatzen diegu arautu eta planifika dezatela, gure erkidegoko garapen berriztagarrria behar bezala arautuz. Ez dezagun utzi asmo azkarrek eta interes ekonomikoek bidea markatzen. Ez dezagun onartu trantsizio energetikoaren izenean akats berberak errepikatzea, espekulazio- eta irabazi-ereduekin. Gure komunitateak behar duen trantsizio ekologiko eta energetikoak bere paisaiaren, biodibertsitatearen, kulturaren, nekazaritzaren eta herritarren premiak kontuan hartu behar ditu.

2/ Bitartean, erakunde sinatzaileok eskatzen dugu berehala eten daitezela gaur egun tramitatzan ari diren instalazio eolikoen, fotovoltaikoen eta lotutako azpiegituren administrazio-prozedura guztiak. Moratoria horren helburua da kudeaketa-arau gehigarriak egitea ingurunearen babesaren arloan, produkzio-instalazioen garapena eraginkorra eta bateragarria izan dadin ingurunearekin, biodibertsitatearen eta gizarte-komunitateen babesarekin.

16.- BESTERIK

Carlos Leache Arreseren gurpil-aldaketa

Irigaray alkate jaunak jakinarazi du, patata ereiteko lurra prestatzeko denbora arazo baten ondorioz, Carlos Leacheren lagapen-gurpilean aldaketa bat egon dela, denboraldi honetan Azanza TNSak utzita eta datorren urtean Iñaki Cilveti beste horrenbeste eginda. Udalbatza jakinaren gainean gelditu da.

Mendi salmenta

Irigaray alkateak jakinarazi du berriki Urdandegietako egurraren lotea saldu zitzaiola Maderas Eciolazari enkante publikoan, 24.600 € gehi BEZ, ez baitzen sesteorik izan. Eta urrian izandako denboralearen ondorioz Antsobin eroritako zuhitzak adjudikatu zaizkiola, 700 € gehi BEZA.

Udalbatza jakinaren gainean gelditu da.

Baso Jarduerak. Arrobiko zuhaitz lepatuen deuseztapena.

Irigaray alkate jaunak jakinarazi du apirilaren 14an baso-jarduketen deialdiari buruzko ebazpena iritsi zela, eta jarduketa guztiak gauzatzeko baimena eman dela; zenbait jarduera diru-laguntzetatik kanpo geratu dira aurrekontu-partidarik ez izateagatik, hala nola bideak mantentzeko proposatutako jarduketa guztiak. Gaineratu du partida bat eman zela Arrobiko bordetan lepauztaia inausteko, baina, kontuan hartuta jarduketak urriaren 7rako justifikatu behar direla, uko egin zaio partida horri, fisiologikoki hori egitea astakeria izango litzatekeelako.

Udalbatza jakinaren gainean gelditu da.

Abeltzaintza azpiegiturak

Irigaray alkate jaunak jakinarazi du duela gutxi esleitu direla aurreikusitako obrak, batetik, Antsobiko mahuka eta Soroluzeako bidea hobetzea Urdazubiko Bengoetxea eraikinei 38.673 € gehi BEZA, eta, bestetik, Orreagarekin muga ixtea Soroluezan, Joalegietatik Kuarentenara, Garraldako Zakarloari (7.442 €BEZA barne).

Udalbatza jakinaren gainean gelditu da.

Marka.

Irigaray alkateak jakinarazi du maiatzaren 15ean 195 UGM markatu zirela Lindus, Atalozti, Mendixuri eta Antsobin bazkatzeko, eta horiei beste 20 gehitu behar zaizkiela, ardi-aziendaren baliokidetasunetik ateratzen direnak.

Udalbatza jakinaren gainean gelditu da.

Auzolana.

Irigaray alkateak jakinarazi du maiatzaren 15ean 195 UGM markatu zirela Lindus, Atalozti, Menditxuri eta Antsobin bazkatzeko, eta horiei beste 20 gehitu behar zaizkiela, ardi-aziendaren baliokidetasunetik ateratzen direnak.

Udalbatza jakinaren gainean gelditu da.

Fotokopiagailu berria erostea.

Irigaray alkate jaunak jakinarazi du administrazio elektronikoa ezartzeko beharrezkoaren erabilera anitzeko makina bat erosi zaiola Dinafaxi, 4.121,80 eurotan, eta horren kostua gastu osoaren % 25ean lagundu dela diruz, gutxi gorabehera.

Udalbatza jakinaren gainean gelditu da.

Argien aldaketa.

Irigaray alkate jaunak jakinarazi du Industria Sailaren diru-laguntzen deialdian San Nikolas kaleko sektorean farolak aldatzeko proiektua aurkezta dela. Bestalde, laster esleituko da pandemiagatik laguntzengatik gastatu behar dugun zatia, 22.000 euro ingurukoa.

Azanza zinegotziak proposatu du diru hori gastatzea iturburutik ur-biltegira doan hodiaren ordez, fibrozementuzkoa baita, polietlenozko batekin, amiantoa arriskutsua baita.

Irigaray alkate jaunak argietan gastatzea proposatu du; izan ere, ez dago argi diru hori hodian gastatu daitekeenik, ez dakigulako zenbateko kostua duen horrek eta gastu-epeak premiazkoak direlako. Hornidura-hodiaren gaiari dagokionez, memoria baloratu bat enkargatzea da asmoa, eta memoria hori aurten deitza aurreikusten den Tokiko Inbertsioen Planean aurkeztea.

Aho batez erabaki da sodio-lurrunezko luminariak leed teknologiaz aldatzeko inbertitzea dirua.

Udalbatza jakinaren gainean gelditu da.

Urrobi ugaldean jardutea, Esondoan.

Irigaray alkate jaunak jakinarazi du, dagozkion baimenak emanda, tapoi bat kendu dela, Esondoa eta Zaldutxipi parean bi zuhaitz erori direlako eta ura ibilguan barna joan ordez meandroaren barna joaten zen.

Udalbatza jakinaren gainean gelditu da.

Xuringoako bidea hobetzea

Irigaray alkate jaunak jakinarazi du, Girizun kolegiata ateratzen ari den zuhaitzak direla eta, sustatzaileekin harremanetan jarri zela eta erabaki dutela, Arrosariobidetik eta Antsobitik pasatzeagatik kanona jarri beharrean, modu iraunkorrean geratzea zurgileak bere kabuz eta erauzketarako Xuringoan egin dituen hobekuntzak.

Udalbatza jakinaren gainean gelditu da.

Mugak berrikustea

Irigaray alkate jaunak jakinarazi du Aurizberriko kontzejuko lehendakariarekin harremanetan jarriko dela urte honetan data bat ezartzeko eta mugak berrikustera joateko.

Udalbatza jakinaren gainean gelditu da.

Sorginartzagako bidea.

Irigaray alkate jaunak jakinarazi du baimena lortu dela Sorginartzagatik bide bat egiteko oinezkoentzako zerbitzua emateko Labakietako etxerako errepidea saihestu ahal izateko, Irrintziko etxeek duten moduan.

Udalbatza jakinaren gainean gelditu da.

Done Jakue Bideko atakak

Irigaray alkate jaunak jakinarazi duenez, Donejakue bidea berriz hastean, erromesek Ugaldesaro eta Mugakolarreako atakak irekita uzten dituztenez, eta, ondorioz, Antsobiko ganadua errepidera irtetean arriskua dagoenez, lehenengoa bideratzea erabaki du, eta Ingurumen Sailari jakinarazi dio arazoari irtenbidea emateko.

Udalbatza jakinaren gainean gelditu da.

Kultur jarduerak

Irigaray alkate jaunak jakinarazi du, pairatzen ari garen pandemia dela eta, gauza asko ezin izango direla egin, iaz bezala kultur etxearen jarduera kontrolatuak egingo direla, hala nola Loizuko gizonaren erakusketa eta hitzaldia, Txistularien kontzertu bat Noaingo guduaren oroitzapena dela eta, Aezkoa Elkartearekin batera Xabier Irujoren hitzaldi bat, Orreagako gatazkari buruzkoa, eta abuztuaren hamabostaren inguruan, Javier Goikoa Juangoren hitzaldia, teilituak egiteko oholtxoen ekoizpenari buruzkoa.

Gaineratu du Nabarralderekin lanean ari direla udazkenean hitzaldi-ziklo bat egiteko eta Kultura Sailarekin Ondarearen Jardunaldiaren barruan zerbait egiteko.

Udalbatza jakinaren gainean gelditu da.

Pirinioko Mahaiak

Irigaray alkateak jakinarazi du Pirinioko Mahaiak, eskualdera bideratutako partida ekonomikoez gain, arazo komunak ere landu dituela, hala nola Pirinioetako obretatik datozen hondakin geldoen kudeaketa, osasun-arazoak, hezkuntza, ibai-igerilekuak edo inguruko masifikazioa. Gai ekonomikoen barruan, EH-Bilduk Estatuko aurrekontu orokorrei egindako zuzenketatik datozen hiru milioi euroak nola kudeatu aztertzen ari direla

Udalbatza jakinaren gainean gelditu da.

Pirinioko Planaren proiektuak

Irigaray alkateak jakinarazi du Pirinioetako Planaren laguntzen deialdiaren barruan hiru proiektu aurkeztu direla: Ipetaiko poligonorako sarbidea hobetzea eta Erro, Orreaga eta Luzaidekin lankidetzan aritzeko bi proiektu (baso-lanen enpresa erdi publiko bat sortzeko azterketa eta Donejakue Bidea hobetzea hainbat zatitan).

Udalbatza jakinaren gainean gelditu da.

Antsobiko ugaldeko piscina.

Irigaray alkate jaunak jakinarazi du EKHak ez duela onartuko errekan presarik, justifikatuta ez badaude, eta Osasun Publikoak ez duela baimenik ematen eremu horretan bainatzeko, uste baitu urak ez direla egokiak bainatzeko. Egoera berean daudela Otsagabia, Ezkaroz eta Aurizberri; beraz, horren inguruan zer neurri har daitezkeen ikusteko bildu dira.

Udalbatza jakinaren gainean gelditu da.

Maisuen etxearen turismo proiektua egitea.

Irigaray alkate jaunak jakinarazi du, PASTD Helburuetako Turismo Iraunkortasunerako Plan Autonomikoan (PASTD) sar daitezkeen proiektuak identifikatzeko deialdiaren barruan, Turismoko Estatu Idazkaritzan aurkeztu dela sabaiaren eta Maisuaren pisuaren birmoldaketa, mendebaldeko Pirinioetako kultura- eta natura-baliabideen balioespen turistikoa egiteko nazioarteko azterketa-zentro gisa. Funtsean, Lindusko hegaztien behaketa eta Zalduako indusketa zehazten da.

Udalbatza jakinaren gainean gelditu da.

Juandeaburre zinegotziak hitza hartu du eta honakoa jakinarazi du:

Auñamendi Gizarte Zerbitzuetako Mankomunitatea

Juandeaburre zinegotziak jakinarazi du ekainaren 4an Batzar Orokorra izan zela eta gai hauek jorratu zirela:

1.- Mankomunitateak egindako jarduera guztiei buruzko informazioa, bere ustez publizitate gutxi ematen diotenak, gauza asko egiten direlako eta jendeak ez dituelako ezagutzen.

2.-Mankomunitatearen estatutu berriak onartu dira, oso zaharkituta baitzeuden. Etxez Etxeko Arreta Zerbitzua arautzen duen ordenantza berri bat ere onartu da, gai asko legebabesik gabe baitzeuden.

3.- 2020ko kontuak onartzea, 456.106,93 euroko diru-sarrerek eta 484.747,35 euroko gastuekin, haur-eskolaren gastuak eragindako 28.640,42 euroko defizitarekin, zeina COVIDek eragindako konfinamenduak iraun bitartean itxi behar izan baitzen, ez ziren tasak kobrau, baina gastuak izaten jarraitu zen, eta, ondoren, bai, ireki zuten, baina ikasle batzuk ez ziren joaten eta ez zuten ordaintzen, baina gastuak ordaintzen jarraitu behar zen. Etxez Etxeko Laguntza Zerbitzuari dagokionez, arazoak egon dira lan egin beharreko ordei dagokienez, eta aurten konpondu da egoera hori; izan ere, Luzaiden lan egiten zuen pertsonak erretiroa hartu du eta plaza amortizatu da, eta horrekin konpondu da gaia.

4.- 2021eko aurrekontuak onartzea, 518.500,00 eurotan.

5.- Udalek egin beharreko ekarpenak onartzea: 14 €/biz. Haur eskolarako eta 25,50 €/biz. Gizarte Zerbitzurako.

17.- ESKAERAK ETA GALDERAK.

Ez daude.

Eta gai gehiagorik ez zegoenez gero, bilkurari bukaera eman zaio egun bereko 21:00etan, eta nik neuk akta idatzi eta fede eman dut.